



KATEBEGIA

Politikaren eta literaturaren (h)egian



Hasiera » (C)politika » Joseba Urrosolo: “Borroka hasieran zuekin ginen eta egun ere zuekin gaude”, esaten digute askok

UZT
08

0

Joseba Urrosolo: “Borroka hasieran zuekin ginen eta egun ere zuekin gaude”, esaten digute askok

Atalak: (C)politika



ETako kide eta preso ohi **Joseba Urrosolo Sistiagarekin** izandako solasaldiaren hainbat pasarte gehigarriak dituzu hauek:

Euskal Preso Politikoen Kolektiboa uzteaz

Kolektiboa [EPPK] uztea, askatasun pertsonala berreskuratzea izan zen, oso garrantzitsua. Askeagoa zara, baina egoera berri eta zailago bat bizi duzu aldi berean. Disidente batzuk Kordokako kartzelan ginen, ez genekien hurrengo urteetan nola egingo genuen bidea, urte piloa baikeuen oraindik barruan egiteko. Ez da kalean bezala. Barruan Kolektiboko kideekin jarraitzen duzu bizitzen, teiatu beraren pean, ez da erraza. Baina, adierazi nahi duzuna

MIKEL ASURMENDI

1958an jaioa. Zumarragarra eta urretxuarra, nahiz batzuentzat ezinezko bitasuna izan. **ARGIAko kazetaria**. Politika esparrutik literatura eremura doan jendarteko gaiak jorratzen ditut normalean, Hendaia munduaren epizentroa izaki.

Jarraitu @masurmendi
@masurmendi(r)en Txioak

Bilatu:

Bilatu

KATEGORIAK

Pasaiara itzuli da 35 urte ondoren. 16 urte klandestinitatean eta 19 espetxean iraganda. San Pedron bildu ginen. Argazkia: Dani Blanco.

azaldu ahal izateko “askatasun” hori hartzea gauza handia da.

Presoak eta hedabideak

Kolektiboa utzi ondoren, Espetxe sistemaren eta Kolektiboaren artean geratzen zara. Bi aldeek erabili nahi zaituzte. Komunikabideek presoak erabiltzen dituzte. Komunikabide handiek, batez ere horiek, zailagoa jarri dute presoen egoera. Presoen arteko edozein diferentzia zatiketa bezala planteatu dute beti. Izenburu sentsazionalistak bilatzen dituzte etengabe. Noski, barruan zaudenean ez duzu horrelakoak agertzea nahi izaten. Hedabide boteretsuek gatazkaren egoera normalizatzen lagundu beharrean, zailago jartzen dute.

Ipar Euskal Herrian lehenik eta Frantzian preso ondoren

Hainbat urte eman nuen Iparraldean. Iparraldean beste pentsamolde bat dago, ezker abertzalean ere bai. Gure garaian, Hegoaldean, ezker abertzalea HB inguruan mugitu zen, Iparraldean ezker abertzalea Abertzaleen Batasuna eta Batasuna bilakatu zen. Eta Batasuna ez da gehiengoan izan. Hango mentalitatea ezberdina izan da. IK-ko presoek bide legala jorratu zuten, eta bide legal horretan baldintzapeko askatasunean atera ziren batzuk, espetxe-baldintza guztiak beteta. Konfinamenduak ere onartu zituen hainbat presok. Gabi Mouescaren eta Filipe Bidarten kasuak hor daude, adibidez.

Demagun, planteatu ezazu garai batean, ETAko preso bat Badajozko ez dakit zein herrian bizitzea. Ezinezkoa zen. Amore ematea zen. Traizioa. Aldiz, Frantzian ETAko presoek bide legalak baliatu dituzte, eta urratsa normalizat jotzen zen edo zuten. Josu Urrutikoetxea Frantziako presondegian egon zenean lan egiten zuen. Horren bidez espetxe onura batzuk lortu zituen, eta hango zigorra laburtu. Espainiako kartzeletan berriz, ezin genuen lan egin, Kolektiboak debekatuta. Kolektiboaren izenean ezin duzu lan egin gaur egun ere. Frantzian, gaur egun, Kolektiboko preso askok lan egiten du normaltasunez. Espainiako kartzeletan onartu diren onura bakarrak ikasketak egitea eta hauen bitartez lortutakoak dira. Adierazgarria, ezta?

Iparraldean bizi izan nintzenean Abertzaleen Batasunaren (AB) inguruan ongi sentitu nintzen. Adibiderako, behinola, IK-k *Il-do* batean adierazi zuen, Euskal Herriak hiru markoen bidez egin behar zuela aurrera. IK-k hori adieraztea oso pozgarria izan zen niretzat. Gure

CATEGORIAN

- ▶ (A)iruzkin literarioak
- ▶ (B)literatura
- ▶ (C)politika
- ▶ (D)kulturgintza
- ▶ (E)gizartea
- ▶ (H)endaika
- ▶ Antzerkia
- ▶ Artea
- ▶ Azpiegiturak
- ▶ Bertsolaritza
- ▶ Dantza
- ▶ Ekonomia
- ▶ Energia
- ▶ Erlijioa
- ▶ Euskara
- ▶ Hedabideak
- ▶ Hezkuntza
- ▶ Historia
- ▶ Hizkuntzak
- ▶ Jaiak
- ▶ Kirola
- ▶ Musika
- ▶ Natura
- ▶ Nazioartea
- ▶ Osasuna
- ▶ Politika saioak

munduan –erakundearen [ETA] eta iheslarien inguruan– ikaragarritzko kritikak izan ziren.

Zer dela eta? Niretzat ulergaitzak ziren euren jarrerak. Nik ABko eta IK-ko jokabideei arrazoia ematen nien. Iparraldeko egoera, baita Nafarroako egoera ere tarteko, ez zegoen bultzatu zuten estrategia aurrera eramaterik. Gaurdanik begiraturik, denborak arrazoia eman dio ABri eta bere inguruko abertzaleei.

Esate baterako, guretzat, preso disidenteentzat, Mugerren 2009ko urtarrilean

Demoak mugimenduak egin zuen agerraldia urrats eta aldaketa adierazgarria izan zen. *Demokoek* bazegoela beste bide bat urratzea eman zuten aditzera, Hegoaldean onartu eta landu ez zena. Dena den, egiari zor, jende askoren esker oneko hitzak jaso ditugu eman ditugun urratsengatik: “Animo, ados gaude”. Askotan, “borroka hasieran zuekin ginen eta gaur egun ere zuekin gaude” esaten digute. Horietako asko ezker abertzalekoak dira. Noski, badira gutxi batzuk jarrera horietatik aparte. Oro har, jendartearen presoen gaiarekin erabat jota dago, jende gehiena etsituta dago.



Iruzkina idatzi

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak * markatuta daude

*Izena **

*E-posta **

Webgunea

- ▶ Sailekatugabeak
- ▶ Zientzia eta teknologia
- ▶ Zinema

AZKEN BIDALKETAK

- ▶ Joseba Urrosolo: “Borroka hasieran zuekin ginen eta egun ere zuekin gaude”, esaten digute askok
- ▶ Jean-René Etchegaray: “Bide egokian ari gara”
- ▶ Canon-aren obturadorea sakatuta geratu zitzaion eskritorea
- ▶ Euskara ez da politika afera
- ▶ “Baigorriar franko ibili zen Ameriketara, segurki haiek ez zirela sekulan bere baitarik joan”.

IRUZKIN BERRIAK

- ▶ Bea Salaberri(e)k Euskara afrontua izanen da Herri Elkargoan? bidalketan
- ▶ Iruñerriarra naiz(e)k Ziztagarria eta kitzikagarria: jendeok iratzartzen bagara, iratzarriko da Euskal Herria bidalketan
- ▶ Iruñerriarra naiz(e)k

Iruzikin

Ondorengo XHTML etiketa eta atributuak erabil ditzakezu: <abbr title="">
<acronym title=""> <blockquote cite=""> <cite> <code> <del datetime="">
<i> <q cite=""> <s> <strike>

Bidali ➤

Ziztagarria eta kitzikagarria:
jendeok iratzartzen bagara,
iratzarriko da Euskal Herria
bidalketan

► **Mikel Asurmendi(e)k**

Ziztagarria eta kitzikagarria:
jendeok iratzartzen bagara,
iratzarriko da Euskal Herria
bidalketan

► **Iñaki Suinaga(e)k** Ziztagarria
eta kitzikagarria: jendeok
iratzartzen bagara, iratzarriko
da Euskal Herria **bidalketan**

ARGIAko Blogarien Komunitatea - CC-BY-SA